

IRUN / Liburu Azoka Zabaltza Plazan egingo dute bihar eta etzi

Euskara eta gaztelerazko irakurketa publikoak egingo dituzte Irungo liburutegian

Irun. Apirilaren 23an urtero egiten den Liburu Eguna dela eta, Irungo liburu dende, Udalaren laguntzaz, azoka jarriko dute Zabaltza plazan bihar eta etzi, 10.00etatik 20.00etara.

Liburu azoka honetan parte hartuko duten Oskarbi, Elkar eta Magda dende %10eko deskontua egingo dute salgai egongo diren liburuak erosterakoan. Irungo Ikust-Alaia liburutegia hilabete osoan zehar ari dira Liburu Eguna ospatzeko ekitaldiak egiten. Besteak beste, tailerrak, hitzaldiak eta kamishibai japoniar erako ipuin kontaketak egin dituzte eta Lewis Carrollen Alizia Herrialde Miresgarrian obra ezagunaren inguruko erakusketa zabalik dago oraindik.

Gainera, ohi bezala, etzi, apirilaren 23a izanik, liburuaren irakurketa publikoak egingo dituzte Ikust-Alaian. Astelehenean, 11.00etan hasi eta ostiralera arte, Cervantesen El Quijote irakurriko dute gazteleraz. Euskaraz, aldiz, etziko ordu berean, Patxi Zubizarretaren Pantaleon Badoa eta Iban Zalduaren Etorkizuna izango dira irakurgai. >x.s.